

ETA MAITA HERIA... (ZAZPIGARREN ATALA)

Gerardo MUNGIA

Patxiren anaia Xabier atxilotu, torturatu eta preso atxiki dute. Bi urteren buruan espetxetik atera eta ongietorria eginen diote. Jexuxmai Lopetegik pastoralerako berariaz ondu eta lehen atalarekin batera webgunean argitaratutako kantuarekin bukatzen da zazpigarren atal hau.

10. JELKALDIA

Idoia eta Patxi Iruñera arraxin, bueltatu dira. Anaia Xabier “preso prebentibo” geratu da. Torturak salatu ditu baina «Espainian tortura ez dela existitzen» ju-
jeek eman arrapostua. Astelehena da. Biak lanerat doaz.

Jelki Taulara Patxi eta fabrikako langile urdinak, zintzoak; jalki Idoia eta bere lankidea den Susana (ate urdinetik). Susanak eta Idoiak jantzi-denda ba-
tean lan egiten dute.

Anabel (langilea)

111. Agur Patxi, ongi zara?
Anaiarena jakin dut.
Altxa burua eta aupa!
A! Zonbat deboilamendu.

Modesto (langilea)

112. Nik ere luzatzen dizut,
bazarenez konpai hurko,
ene sostengu zintzoena.
Agian da beranduxko...

Isa (langilea)

113. Noiz dira geldituko
familiak bortxatzetik?
Jendea torturatzetik?
Gure lurra zapaltzetik?

Patxi

114. Esker mila den-denei.
Gogorra zinez zaflada.
Adarra jotzen ari da.
Has dezagun gure haitada.

Idoia eta bere konpaia Susana jantzi-dendan solasta-
tzen ari dira.

Susana (langilea)

115. Agur Idoia, zer diozu?
Sofritu duzu anitz beldur?
Zainak laxatu adiskide.
Noiz arte hainbertze malur?

Idoia

116. Hau bukatu behar noizbait.
Zenbat urtez borrokatuz?
Bizikidetza kraskatuz...
Soraioak holakatuz.

Jelki langile horiak edo eskirolak larde-
riaka (borta gorritik).

Purnas (langile horia)

117. Asearazten gaituzue.
Politika, aberria...
Eta meta lasto meta...
Horiek dira ergelkeriak.

118. Ikurrinarena ez bada,
presoen nik ez dakit zer...
Itoiz, Bardeak, euskara...
Nahaspila duzue plazer.

Kakalardo (langile horia)

119. Erran, erran eta erran.
Jinkoa! Denak elerran!
Etxeko eleak etxean!*

Zorri (langile horia)

120. Ez dut zopara tu eginen.
Lan honetarik bizi behar:
Dirua inportanteena!
Zer arraio eta zer addar!

121. Kurdistan elkartasuna!
Eta *Visca Catalunya!*



Xabier atxilotu, torturatu
eta kartzelatu dute.
Haira ARIZTEGI

Hemen lan guti bada ere,
datozela etorkinak!

Beltzuntza (langile horia)
122. Andereak okerrenak.
Beti guri aztalak jaten.
Gizonkien solasetan
zuek ez zarete edeten.

Jelki guardiak ate gorritik.

Bataila. Langile eskirolek edo horiek
eta txakurrek alde egiten dute.
Arizale guziak erretira.

11. JELKALDIA

Bi urte iragan dira eta Xabier preson-
degitik aterako da. Epaiketarik gabe,
makilatua, torturatua, sakabanaketa
eta isolamendua sofritu ondoren... In-
justizia, nork dio ordainduko? Nehork
ez. Espainian gara... Patxi fabrikatik da-
tor eta Idoiarekin mintzoan hasten da.
Jelki taulara Patxi eta Idoia (borta ur-
dinetik).

Patxi
123. Lanetik nator maitea.
A, ze madarikatuak!
Gaueko txanda ezarri.
Bagaituzte unatuak.

Idoia
124. Horiek dira berri txarrak!
Alta betiko terrenta.
Adi zer derasadan, to!
Banauzu haur beharretan.

125. Kuttuna, bi hilabetez
emalegeak ditut ments.
Han dira bederatziak...
Beraz, gaitezen pazient!

Patxi
126. Bada berririk hobeaz?
Mendreneko dudarik ez.
Osoki azkar maitea?
Norbaitek daki zure aldeaz?

Etxeko atean jo dute. Adiskide eli batek
berri onak, bikainak dakartza.
Jalki adiskideak (ate urdinetik).

Haira (adiskidea)



«Petti Buhame», 2014an
Garindainen jokatua.
Bob EDME | FOKU

127. Oixtian abisatu.
Kalera jalgi da Xabier.
Arrastirian gurekin
ulertu ez badut oker.

Jasone (adiskidea)
128. Arno goxorik dakargu.
Atera ezazue zahatoa.
Bultaño batez apaila
dezaket otamenttoa.

129. Hegazkinez helduko omen.
Gauaz herrian batzarre.
Hargatik larunbatean
benetako gorazarre.

Alaiki ospatzen ari dira. Kanpoan elur-
kara dago.

Txarli (adiskidea)
130. Hara! Elurretan hasi.
Gaur egun ez da maizko.
Malutak urtzen baitira
lurrera iritsi baiko.

**Astelehena da. Idoia eta Patxi lanerat doaz. Jelki taulara
Patxi eta fabrikako langile urdinak, zintzoak; jalki Idoia eta
bere lankide Susana (ate urdinetik). Susanak eta Idoiak
jantzi-denda batean lan egiten dute**

**Bi urte iragan dira eta Xabier presondegitik aterako da.
Epaiketarik gabe, makilatua, torturatua, sakabanaketa eta
isolamendua sofritu ondoren... Injustizia, nork dio
ordainduko? Nehork ez. Espainian gara...**

131. Ze pollita den elurra!
Dakarren ixiltasuna.
Iradokitzen dituen
barneko begitasunak.

Idoia
132. Gurera etorri zaigu
eguna zinez joria...

Patxi.
133. Haur behar dago Idoia.
Jinbeharraren zoria.

Jalki Arizale oro, bakoitza bere atetik.
Kantatzera doaz.

5. KANTOREA: IDOIARENDAKO BALADA

–Begiak ikus dizkizut
alaitasunez nasaiki...
Ene gorputzaren ferekatzeko irrikaz.

–Mintzoan, muxu hezeak.
Ezpainez ezpain kartsuki.
Zure eskua iratzarri da ene sexuan.

Izendatuko bazintut...
Ahoskagaitz ele ederra...
Ez bainekike idazten
Ezta nire bihotzean.
Urrinaren kantorea.
Mugagabeko oraina.

–Eztitasun hilezkorra.
Oraingoa gerokoa.
Buztan dadin umetokia. Elur zuria.

–Eriak soinean kulunkan.
Suzkoak gizon-emazte.
Ahurak galdurik, zu ukitzeko panpaka.

–Izendatuko bazintut...
Ahoskagaitz ele ederra...
Ez bainekike idazten
ezta nire bihotzean.
Urrinaren kantorea.
Mugagabeko oraina.

Airea: Balada (Jexuxmai Lopetegi).

Denak erretira beren ateetarik. Eszena-
tokia hutsik agertzen zaigu.

*Hitz-jolasa: ‘aberea’ edo ‘hitza’ izan baitaiteke e/ea